

1962-an, bachiller seigarren urteko rebalida egiten du ekainean, eta gero «Preu». Ekonomiazko jakintzak hasten ditu, baina presarik gabe. Hil zenean, oraindik bukatu gabe zituen, amaitzeko bi gai falta zitzaizkiolarik. Urte haretantxe pasatzeko esperantza zuen. Ekonomiazko jakintzetan lizentziatua dela esan genezake.

Irakasletza ere egina zuen, ikas-urte batez (1965-1966). Sto. Tomas Lizeoan euskal literaturen historia irakatsi zuen.

Okzitaniako Tolosan, 72. IV. 18.

JOAN MARI TORREALDAY

### JOSE DE ARTECHE ARAMBURU (1906-1971)

1971eko irailaren 23an hil zen Donostian. Joxe Artetxe, azpeitiarra zen, 1960ko martxoaren 12an jaioa.

Gipuzkoako Diputazioaren Bibliotekaren arduraduna. Euskaltzaindiaren laguntzaileetarikoa. Idazle ospetsu honek, erdarazko liburu askoren egilea bada ere, euskaraz ere maiz idazten zuen, batez ere bere azken urteetan. Bere euskarazko artikulua «Argia», «Yakintza», «El Día», «Zeruko Argia», «Egan», «Aránzazu» eta «Hoja del Lunes» Donostiakoan ikusi dute argia. Eta Donostia bertako «La Voz de Gipúzcoa» izeneko radiotik euskarazko emizioak ematen zituen.

*El Gran Asombro* liburuaren hitzaurrean ber-berak dionez: «Los elogios de los actos necrológicos se pronuncian y luego se pierden». Eta, guk, honegatik, bere bizitza eta lanen iturriak soilki eman nahi ditugu hemen, aipamen hutsez, estudioak egin nahi diuenei nora jo jakin ahal izateko bezala.

Hauek dira erdaraz idatzi dituen liburuak: *Una inquietud y cuatro preguntas*, 1934; *San Ignacio de Loyola*, 1941 (bigarren argitalpena, 1947); *Elcano*, 1942 (bigarrenez, 1969); *Urdaneta*, 1943 (bigarrenez, 1968); *Mi Guipúzcoa*, 1946; *Legazpi*, 1947; *Caminando*, 1947; *Mi viaje diario*, 1947; *San Francisco Javier*, 1951; *Lope de Aguirre, traidor*, 1951; *La paz de mi lámpara*, 1953; *Vida de Jesús*, 1953; *¡Portar bien...!*, 1957; *Saint-Cyran*, 1959 (bigarrenez, 1961); *Cuatro relatos*, 1960; *Camino y horizonte*, 1960;

*Lavigérie*, 1963; *Siluetas y recuerdos*, 1964; *Rectificaciones y añadidos*, 1965; *Discusión en Bidartea*, 1967; *De Berceo a Carlos Santamaría*, 1968; *Canto a Marichu*, 1970; *El abrazo de los muertos*, 1970; eta *El Gran Asombro*, 1971. Bigarrenez argitaratu diren liburu guziak zuzenketa eta gehigarriekin daude. Liburu guziok Euskal Herriko bizitzari loturik daude, historia, kultura, prolemak eta abar. Beretako batzuk hizkuntza hauetara itzuliak izan dira: portugesera, frantsezera, inglesera, neerlandesera, alemanera eta euskara. Argitaratu gabe gelditu diren lanen artean, *Un vasco en la postguerra* da, 1939-1966 urteetako egunkari bezala, lehenago gudateari buruz *El abrazo de los muertos* (1936-1939 urteetako egunkaria) idatzi zuenaren jarraipen bezala. Erdarazko aldizkari askotan idatzi zuen, baina batez ere «La Voz de España» egunkarian eta «Boletín de la R. S. V. A. P.» aldizkarian.

*Euskaldun fueristak* izenez zenbait artikulua argitaratu zituen «Zeruko Argia»n, eta berak behin esan zidanez, liburu bat hornitu nahi omen zuen gai hontaz, euskaraz. Baina ez zen heldu burutzera. Behar bada bere paperen artean izango dira hortaz lan gehiago. Gainerako euskarazko lanak aski maxkalak izan dira.

Behar bada, euskara eta euskal kulturaren alde egin zuen lanik hoberenetakoa izan zen Gipuzkoako Diputazioaren liburutegitik guztioi eman zigun laguntza, zeren borondaterik hoberenakin laguntzen ziren bertara galdezka edo ikerketara joaten ziren guztiei. Beti egoen laguntzeko prest, bideak idekitzen, ageri edo liburu zaharrak bilatzen, eta argitaratzen ziren euskarazko liburu guziak bibliotekara pilatzen. Hauetan laguntza izan genuenok inoiz ez dugu behar haina eskertuko bihotz handi eta borondate handiagoa zuen gizon hau.

Bere heriotza, modu batera edo bestera, denok sentitu genuen. Dolumina Euskal Herri guzian zabaldu zen, eta hileta garaiko egunkari guziak agertu zuten sentipen hau. Hemen ere, bere ezagupidearen argi bidez, gizona barneragotik ezagutu nahi dutenentzako, adibiderik aipagarrienak agertu nahi genituzke, eta hil ondorengo egunkariez aparte, batzuen aipamena dakarkigu: «Zeruko Argia» (448 zenbakia, 1971eko urriaren 3koa), «Boletín de la R. S. V. A. P.» (XXVII, 1971, 360/362 orr.), «Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos» (XXII, 1971, 170/175 orr.).

G. B.

J. S. M.